



AKTEA/07

BERMEOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA
(2024-02-20)

Batzarraren izaera:	Ohikoa
Deialdia	1. deialdia
Data:	2024-02-20 (Asteartea)
Lekua:	Irakaskintza kalea 14-16 (Gizarte eta Kultura Etxeko batzar gela)
Hasiera-ordua:	08:00
Amaiera-ordua:	08:15
Alkate-Presidentea:	NEMEH SHOMALY NADIA
Batzordekideak:	ETXEBARRIA TELLERIA ENDIKA URIARTE ANASAGASTI VICTOR ORTUZAR BUTRON XABIER GABANTXO URIAGEREKA MIREN KARMELE BILBAO SAN NICOLAS IKER
Bertaratu ez direnak:	CARUEZO UGALDE MAITE
Idazkaria:	LEJARRAGA URIARTE JURDANA



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E8000ED2FD00J2R0I2I8W8A7

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 20/02/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 20/02/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 20/02/2024 10:02:07

DOCUMENTO: 20240971517

Data: 20/02/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia



Aztergaiak

- 1.- Aurreko akta irakurri eta onestea: 2024-02-12 TGB (06)
- 2.- Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik daukaten adieraztea.
- 3.- Eupeme Deuna kalea 13 zenbakiko erakinaren beheko solairuko eskumeneko lokalaren bizigarritasun lizentzia onartzea.
- 4.- Aritzatxuko kantinaren eta komunen emakida esleitzeko deialdiaren oinarriak onartzea eta deialdia zabaltzea.
- 5.- Udalak duen hitzorduak kudeatzeko prozedura aldatzea onartzea.
- 6.- Alkatetza dekretuen berri emotea.
- 7.- Eskari eta itaunak.

Alkateak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, batzarra hasi du eta Tokiko Gobernu Batzarreko kideek euren kargua onartu dute. Jarraian, deialdiko aztergaien zerrendan jasota dauden gaiei heldu diete. Eraitza honakoa izan da:

1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA: 2024-02-12 TGB (06)

Bertaratutako batzarkideek 2024ko otsailaren 12ko 06/2024 akta irakurrita, aho batez, onartzea erabaki dute.

2.- BATZARKIDEEK GAI ZERRENDAKO PUNTUETAN INTERES PERTSONALIK EDO FAMILIAKORIK DAUKATEN ADIERAZTEA.

Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik ez daukatela adierazi dute.

3.- EUPEME DEUNA KALEA 13 ZENBAKIKO ERAKINAREN BEHEKO SOLAIRUKO ESKUMENEKO LOKALAREN BIZIGARRITASUN LIZENTZIA ONARTZEA.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000ED2FD00J2R0I2I8W8A7

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 20/02/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 20/02/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 20/02/2024 10:02:07

DOCUMENTO: 20240971517
Data: 20/02/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Xedea

Eupeme Deuna kaleko 13 zenbakiko erakinaren beheko solairuko eskumeko lokalean egindako etxebizitzaren bizigarritasun lizentzia.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2023ko otsailaren 28an 30.662.615-G NAN zenbakidunak Eupeme Deuna kalea 13 zenbakian egindako obren legeztapena eta bizigarritasun lizentzia eskatzeko.

Bigarrena: 2023ko azaroaren 27an udal arkitektoak txostena egiten du.

Hirugarrena: 2024ko urtarrilaren 15ean Urigintza, Obra eta Ingurumen Saileko Administrazio Orokorreko teknikariak txostena egin zuen.

Laugarrena: 2024ko urtarrilaren 15ean Urigintza, Obra eta Ingurumen Saileko Administrazio Orokorreko teknikariak erabaki proposamena egin zuen.

Argudioak

Lehenengoa: 2023ko azaroaren 27an egin zuen txostenean hurrengokoa jasotzen da:

“Bermeoko HAPOak R.1 bezala kalifikatzen du Eupeme Deuna 13an kokatzen den eraikina eta HAPOak A.0 bezala mugatutako Lurralde Arean kokatzen da.

Bermeoko HAPOak bere 3.2.13 artikuluan R.1 erabilera duten eraikinetako beheko plantetan baimendutako erabilera bezala definitzen du etxebizitza erabilera. Bermeoko Alde Zaharra birgaitzeko Plan Bereziak ez du debekatzen etxebizitza erabilera eraikinen beheko plantetan.

Eskariari dagokion dokumentazioa aurkeztu da:

1. *Etxebizitza bezala higieztina zergapetzeko alta egiaztagiria.*
2. *Obraren memoria, planoak eta balorazioa (24.808,64 €).*
3. *Ziurtagiria REBT.*
4. *Energia Eraginkortasunaren Ziurtagiria.*

Dokumentazioa bat dator aplikaziozkoa den hirigintza araudiarekin, eta 2023ko urriaren 26an egindako ikuskapenean ikusi dut gauzatutakoa lizentzia eskatzeko dokumentuekin bat datorrela.

Proposamena



Goian aipatutako guztia kontuan hartuta, oker edo hutsik ezean, honako hau proposatzen dut: Saioa Apraiz Imatz andreak eskatutakoa onartzea.”

Bigarrena: Eupeme Deuna kalea 13 zenbakiko eraikinaren beheko solairuko eskumenerako lokalean egindako obra etxebizitza bihurtzeko amaitu ondoren eta, udal arkitektoak 2023ko maiatzaren 8an egindako aldeko txostena ikusirik, bizigarritasun lizentzia eman daiteke.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak xedatutakori jarraituz, 207 artikuluan aipatutako ekintzak hirigintzako lizentzia behar dute, besteak beste obren lehenengo erabilpenak.

Hirigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeko 207 r) eta 210 artikuluek eta Hirigintza Diziplina arautzen duen ekainaren 23ko 2187/ 1978 Errege Dekretuaren 3 eta 4 artikuluek xedatutakoari jarraituz, espedientearen tramitazioa indarrean dagoen araudiarekin bat dator. Era berean, eskaria bat dator be hirigintza araudiarekin, udal arkitektoak 2023ko azaroaren 27an egindako txostenena aipatzen den bezala.

Hirugarrena: Hirigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeko 209.2 artikulua eta Toki- administrazioen Oinarriak arautzen duen 7/1985 Legearen 21.1.q) artikulua kontutan hartuta, hirigintza lizentziak emateko eskumena alkatearena da, baina eskumen hori 2023ko ekainaren 29ko 3096. zenbakidun Alkatetza Dekretuz Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetuta dauka.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: Eupeme Deuna kalea 13 zenbakiko eraikinaren beheko solairuko eskumenerako etxebizitzaren bizigarritasun lizentzia ematea.

BIGARRENA: Obren azken aurrekontua 24.808,64 eurokoa (BEZa kanpo) da.

HIRUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabaki honen barri ematea.

Endika Etxebarria batzar gelara sartu da.

4.- ARITZATXUKO KANTINAREN ETA KOMUNEN EMAKIDA ESLEITZEKO DEIALDIAREN OINARRIAK ONARTZEA ETA DEIALDIA ZABALTZEA.

Xabier Ortuzarrek esan du ezarritako kanona garestia dela eta bere proposamena dela zenbatekoa baxatzea.



Idazkariak esan du errenta teknikariaren txostenaren kontra egiten bada modu arrazoituan justifikatu behar dela.

Alkateak adierazi du Errenta teknikariarekin elkartzeko justifikazioa lantzeko eta gaia mahai gainean uztea proposatu du.

Proposamena

Xedea

Aritzatxuko kantinearen eta komunen emakida esleitzeko deialdiaren oinarriak onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: *Aritzatxuko kantinearen eta komunen emakida iraungita dago. Hori horrela, emakida berria esleitzeko deialdia egin behar da eta, horretarako, agintarien eskariz, lehiaketa bidezko deialdiaren oinarriak prestatu dira Idazkaritza Sailean.*

Bigarrena: *2024ko otsailaren 1ean, Errenta Saileko teknikariak txostena eman zuen, emakida dela eta, ordaindu beharreko kanonari buruz.*

Hirugarrena: *Egun berean, udal kontu hartzaileak, 2024ko udal Aurrekontu Orokorreko baliabide arrunten %10a zehazteko ziurtagiria eman zuen.*

Laugarrena: *Udal arkitektoak espediente honen xede den jabari publikoko ondasunaren balorazioa eta hirigintza kalifikazioari buruzko txostena igorri zuen, 2024ko otsailaren 2an.*

Bosgarrena: *2024ko otsailaren 6an, Idazkaritzako AOTak txosten juridikoa eman du.*

Argudioak

Lehenengoa: *Emakidaren xede den kantina eta komunak jabari publikoko ondasunak dira, zerbitzu publikoari atxikiak, ekainaren 23ko 1372/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duenaren 4. artikulurekin bat etorritik.*

Bigarrena: *Proposatutako okupazio-izaera eta epea kontuan hartuta, jabari publikoko erabilera pribatiboa da, eta, beraz, dagokion emakida eman beharko da, 33/2003 Legearen 86. eta 93. artikuluetan eta 1372/1986 Errege Dekretuaren 78.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.*

Hirugarrena: *33/2003 Legearen 93.1 artikulua ezartzen duenez, jabari publikoko ondasunen gaineko emakidak lehiaketa bidez emango dira. Eta lehiaketa bidez*



esleitzeko irizpideak zehaztu, agintarien eskariz, kudeaketa kalitate-prezio erlazio onenean egin dadin

Laugarrena: Kontuan izanda negozio juridiko hori dagokion herri-jabariko emakida egilestearen mende dagoela eta bere legeria propioa izango duela, hori izango da administrazio publikoen ondasunak arautzen dituena, eta, beraz, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen eremutik kanpo geratuko da, nahiz eta, lege-hutsuneen kasuan, kontratu-araudi publikoaren printzipioak aplikatu behar zaizkion.

Bosgarrena: Espediente honen xede diren emakidak ez ditu udalak finantzatu, aitzitik, kontzesiodunek ordaindu beharreko urteko kanonaren mende daude.

Seigarrena: Emakiden oinarriak eta esleipena onartzeko ahalmenari dagokionez, Sektore Publikoen Kontratuak arautzen duen 9/2017 Legearen II. Xedapen Gehigarriaren 9. atalaren arabera, ahalmena alkateari dagokio, oinarrizko aurrekontua ez baita egungo udal aurrekontuko baliabide arrunten % 10 baino handiagoa.

Baina 2023ko ekainaren 29ko 3.096 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez, ahalmena Tokiko Gobernu Batzarrarengan delegatu zen.

Proposamena

LEHENENGOA: Aritzatxuko kantinaren eta komunen emakidak esleitzeko deialdiaren oinarriak onartzea.

BIGARRENA: Jabari publikoaren gaineko emakida esleitzeko deia egitea. Horretarako, dagokion iragarkia argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, udalaren webgunean eta iragarki-taulan. Eskaintzak aurkezteko epea 15 lanegunekoa izango da, iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

HIRUGARRENA: Erabaki hau Idazkaritza sailari, Ekonomia sailari eta ATBri helaraztea, jakinaren gainean egon daitezzen dagozkion ondorioetarako.

LAUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabaki honen berri ematea.

5.- UDALAK DUEN HITZORDUAK KUDEATZEKO PROZEDURA ALDATZEA ONARTZEA.

Miren Gabantxok proposatu du hitzorduak grabatzeko aukera jasotzea prozeduran.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E8000ED2FD00J2R0I2I8W8A7

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 20/02/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 20/02/2024
CN=tza.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 20/02/2024 10:02:07

DOCUMENTO: 20240971517
Data: 20/02/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



CSV: 07E8000ED2FD00J2R0I2I8W8A7

Alkateak esan du gaia aztertuko dela.

Xedea

Udalak duen Hitzorduak kudeatzeko prozeduraren aldaketa onestea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Bermeoko Udalak, udalaren kudeaketa Iso 9001 ereduaren arabera egituraturik eta antolaturik izan du 2004 urtetik. Ordurik eta lehen ikuskaritza egin zenetik, urtero Zuzendaritzaren Berrikuspena egin izan da, prozedura eta inprimaki guztien berri eman eta kontrol dokumentala bermatu ez ezik, prozedura guztiak eguneraturik zein momentuko beharrianetara egokiturik mantentzeko.

Bigarrena: 2005eko abendutik, kontrol dokumentalaren prozedura martxan dauka udalak, dokumentuen kodifikazio modua xedatu eta beti azken edizioaren araberrako funtzionamendua bermatzeko.

Hirugarrena: 2018an Iso 9001 eredutik, udal guztian eragingo zuen eta udal mailako kudeaketaren oinarriak ezarriko zituen Kudeaketa Aurreratuko eredu batera igartzeko erabakia hartu zuen udalak.

Laugarrena: Inprimaki, prozedura eta jarraibideen kontrol dokumentala indarrean mantentzen da eta dokumentazio guztia eguneraturik dago; bestalde, urteroko zuzendaritzaren berrikuspena 2018tik ez da burutu.

Bosgarrena: Azken urtean, egoerak eraginda zein E-administrazioaren ezarpena dela eta, aldaketa beharrianak ugaritu eta eredu, jarraibide eta prozedura berrien martxan jartzea nabarmendu da.

Seigarrena: 2021eko apirilak 20ko Tokiko Gobernu Batzarrak, udalaren kontrol dokumentalaren eguneraketa prozesua gaurkotzeko eta dinamika berria ezartzeko erabakia hartu zuen.

Argudioak

Lehenengoa: Aldaketa handi eta ugarien momentu honetan, erabateko garrantzia dauka, sortzen diren eduki berrien kontrola eroan, beti azken bertsioak erabiltzen direla ziurtatu eta eguneratutako informazioa jasotzen duten ereduaren erabilera bermatzea bai udal barnean bai herritarrei begira, gune berean udaleko edozein langilek normalizatutako eredu hauetara sarbidea izateko aukera bermatuta.

Bigarrena: Udalak 2018ra arte Iso 9001 ereduaren arabera, kasuz kasu Tokiko Gobernu Batzarrak onetsitako ereduez gain urtero berrikuspen bat egiten zuen. Urte



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E8000ED2FD00J2R0I2I8W8A7

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 20/02/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 20/02/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 20/02/2024 10:02:07

DOCUMENTO: 20240971517

Fecha: 20/02/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



horretatik, kudeaketa orokor baterako bidea hasi nahi izan du eta eredu berri baten arabera oinarriak ezartzen hasi da. Urteko berrikuspen horiek ordezkaturako dituen hausnarketa zein azterketa lana antolatzeko beharrezana dago.

Hirugarrena: Udalak hiru ardatzetan egituraturako koordinazio bilerak egiten ditu eta kontrol dokumentalaren berri emateko, foro egokiak dira, aldaketen berri eman, hedapena bideratu eta dokumentu guzti horien egoeraz jabetzeko gatazka kasu edo zailtasunen bat egotekotan, Zuzendaritzara ere bideratuta.

Laugarrena: Udalak, 2023ko ekainaren 29ko 2023/3096 zenbakia daroan Dekretuaren arabera, prozedura eta inprimaki eredu normalizatuak onartzeko eskumena Tokiko Gobernu Batzarrengan utzi du.

Bosgarrena: Udalak 2021eko apirilaren 20an hartutako erabakiaren arabera, aldiro dauden aldaketa guztiak zuzenean martxan jartzeko aukera bermatuta, horien onespena Tokiko Gobernu Batzarreko aktan jasotzen da, langile guztiek horren berri izan dagien.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: Hitzorduen prozeduran egindako aldaketak onestea erantsitako dokumentuaren arabera.

BIGARRENA: Egindako aldaketa guztiak jasotzen dituen azken eredu, dokumentu eta prozedura hauetara udaleko edozein langilek sarbidea izan dezan eta edozein momentutan beti azken edizioa kontsultatzeko aukera izan dezan HARTU EMONAK karpetan jasota uztea.

HIRUGARRENA: Udal sail guztiei erabaki honen berri ematea.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E8000ED2FD00J2R01218W8A7

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 20/02/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 20/02/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 20/02/2024 10:02:07

DOCUMENTO: 20240971517
Data: 20/02/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E8000ED2FD00J2R01218W8A7



	Hitzorduak	Kodea: PR 05.21/ 10-23
		Orrialdea: 9 / 13
		Data: 2024-02-07

HEDAPENA

MODUA	DATA
TGBko akta bidez udal guztian	2024-02-20

ALDAKETEN HISTORIKOA

Edizinoa	Data	
		<i>Aldatu diran atalak</i>
2	2006/10/16	KONPROMISOAK: Egun 2 arinago jakinarazo aldaketak ADIERAZLEAK: Epea
3	2007/05/14	2006ko azaroaren 27an Osoko Bilkureak Sailaren izena aldatu eban, AIK (Antolakuntza, Informatika eta Kalidade Saila) izan beharrean ATB (Antolakuntza eta Teknologi Barriak) aurrerantzean Batzordeen funtzionamendu eta egitura aldaketa. Konpromisoa osotu edo sendotu da
4	2008/01/15	PR-en identifikazioaren egitura eta onarpen egituraren aldaketa
5	2010/01/11	Konpromisoa: Egun 2 arinago jakinarazo aldaketak beti be ez danean ezusteko edo ezinbesteko kasuren bat.
6	2011/02/03	Kalidade batzordearen izen aldaketa. Orain Kudeaketa batzordea. Osoko Bilkurak onartuta 2011-02-03
7	2012/05/02	Adierazleak 3 hilabetero neurtuko dira
8	2014/02/06	Adierazlea moldatu da, eraginkortasuna handitzeko eta esanguratsuak diran desbideraketei behar bezalako tratamendua eskaintzeko. Kudeaketa batzordea bertan behera gelditu da
9	2019/05/06	Hitzorduen kudeatzailea identifikatu, oharrekin informazioa osotu, teknikari eta dagokion ordezkari politikoarekin egon ostean, Alkatearen aukera eskaini
10	2024/02/07	Teknikarien hitzorduetara datorren interesdunari, gai berdinari buruz hitz egiteko 2 hitzordutara mugatzea aukera.

ONARPEN EGITURA

Sortze-data: 2005eko iraila

Azken aldaketa: 2024-02-07

Ebazpena: 2024ko Otsailak 20ko TGBan

Erantzulea: ATB Saila

1.- XEDEA

Herritarrek kontsulta teknikoak edo bestelako kontsultak egin ditzaten, teknikari, zinegotzi edo Alkatearekin elkarrizketatzeko hitzordua ematea da izapide honen helburua.

2.-IRISMENA

[Berhaz](#), sail guztiak, zinegotziak eta Alkatea.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000ED2FD00J2R0I2I8W8A7

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 20/02/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 20/02/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 20/02/2024 10:02:07

DOCUMENTO: 20240971517

Data: 20/02/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



3.- AZPIPROZESUAK ETA EPEAK

HITZORDUA EMAN	TEKNIKARI, ZINEGOTZIEK eta ALKATEAK ADIERAZOTAKO EGUNAREN ARABERA, BEREHALA BAINA GEHIENEZ HITZORDUAREN DATA BAINO 24H. ARINAGO
HITZORDUA BERTAN BEHERA ITXI EDO ALDATU	GITXIENEZ 2 EGUN LEHENAGO

4.- PROZESUAREN SARRERA ETA URTEERAK

PROZESUAREN SARRERA ETA IRTEERAK					
Sarrerak (INPUTA)	Baliabideak	Irteerak (OUTPUTA)	Bezeroa	Faktore klabeak	Konpromisoak
Hitzordua eskatu	-Langileak -Programa informatikoa -Frogagiria	Batzarra	-Interesduna: persona fisikoa	Adostutako hitzordua BERMATU	Baliogabetze kotan zein egunez aldatzekotan herritarrari 2 eguneko aurrerapenar ekin jakinarazi. Beti be ez denean ezinbesteko edo ezusteko kasua.

5.- PROZESUAREN KUDEAKETAN ETA HOBEKUNTZAN ERANTZUNKIZUNAK, ARDURADUNAK:

Jabea: A.T.B. Saila

Kudeaketarako parte hartzaileak: A.T.B. Saila

Udal sailletako teknikari, finkatutako langileak, zinegotzi eta alkateak

6.- GARAPENA

* *Izapide hau, Telefonoz be burutu daiteke (azken honen kasuan ez du frogagiririk edukiko)*

Berhaz bulegoko langileak, bai bulegoan zein 010 zerbitzuaren bidez herritarraren beharrezko aztertuta, dagokion saileko teknikariarekin hitzordu aukerak eskaintzen dizkio interesdunari. Lehendabizi, teknikari arduradunarengana bideratzen zaio, eraginkortasunezko zerbitzua eskaintzeko. Zinegotziarekin elkarriketatzeko hitzordua bigarren aukera moduan eskaintzen da, teknikariarekin egon delako jada edo espresuki horrela eskatzen duelako interesdunak (azken eremu hau zioetan jasota utziko da, ordezkaritza politikoa edo bere hitzorduak kudeatzen dituenak jakin dezan), azken aukera gisa, eta aurreko biak burututa, Alkatearekin hitzordua ematen zaio herritarrari (azken kasu honetan ere zioetan, aurreko fase biak burutu direla idatziz jasota uzten da).

Teknikarien kasuan, eraginkortasuna bermatzera aldera, interesdun berarekin gai berdinari buruz ez da bi hitzordu izateko baino aukera gehiago emango.

Hitzorduen aplikazioa kontsultatu ostean, ahalik eta arinen ematen zaio hitzordua herritarrari **beti be**, gehienez hitzorduen data baino 24h. arinago.

Gaia beti zehazturik agertu behar da, **arazo pertsonalak, zenbait gai ... eta antzeko** formulak ekidituta. Modu honetan, hitzorduen gaia behar bezala prestatu eta beharrezko dokumentazioa eskuratu izatea bermatzen da. **Ezin izango da hitzordurik emon gaia zehaztu gabe.**



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatuta ahal dozu.

Kodea:
07E8000ED2FD00J2R0I2I8W8A7

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 20/02/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 20/02/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 20/02/2024 10:02:07

DOCUMENTO: 20240971517

Data: 20/02/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E8000ED2FD00J2R0I2I8W8A7



Interesdunaren datuak hartzen dira: Izena, telefonoa, identifikazio zenbakia (NAN), norekin batzartuko den, gaia eta batzarrera etorriko diren pertsona kopurua. ZIOETAN, teknikari edo zinegotziak jakin beharreko eremuren bat egotekotan jasota utziko da, aurreko parrafoetan adierazitako kasuetan nahitaez agertu beharrekoa.

Ondoren, agenda elektronikoa sartzen dira datuak eta hitzordua gogoratzeko inprimakia bezeroari ematen zaio, (bulegoan hartu badu hitzordua) ezingo balu etorri 010 zerbitzuan horren berri emateko adierazita.

Hitzorduen aplikazioa teknikari guztiek, zinegotzi guztiek, alkateak eta hitzordua kudeatzeko langileek dute.

Berhaz bulegoko langileak hitzordua ematen duen momentutik, hitzordu hori ikusgai daukate teknikariek, zehaztutako langileek, zinegotziek edo alkateak.

KUDEAKETA LANA:

Legealdi aldaketa unean, hitzordu egun eta orduak, ordezkarri politikoko bakoitzak zehazten ditu eta horren kudeaketa nork eroango duen adierazten du, ATB Sailak horren arabera, zinegotzi berrien erabiltzaileak sortu, guzti horren parametrizazioa egin eta arreta guneetan hitzordua eman ahal izateko prest uzten du.

Urtea amaitu aurretik, bai teknikariek zein ordezkariak dituzten hitzordua, egutegi berrira egokitzen dira, urtea hasiaz batera prest egon daitezen; egiteko hau urtero, ATB Sailak egiten du.

Hitzorduen egun aldaketak, ordu aldaketak, herritarren hitzordu aldaketak, herritarrei hitzordu horiek aldatu direnaren berri emateak, bertan behera utzi edo okupatzeak, teknikari edo zinegotziari dagozkio edo bakoitzak egiteko horretarako zehaztutako langileari. Une oro Berhazek, zein hitzordu eman ahal duen eguneraturik eduki behar du, herritarrei hitzordua bermatzeko.

Herritarrek hitzartutako batzarrera ezin badu etorri, Bermeoko Udalari jakinarazten deitso hainbat arinen, 010 telefonora deituta. Abisua jasota, dagokion teknikari, zinegotzi edo alkateari (zein hauek kudeaketa eroateko aukeratutako langileari) jakinarazten zaio, jakitun egonda kudeatu dagian.

Behin herritarrekin hitzordua izan eta gero, momentuan erantzuna ematea posible izan ez bada, legeak adierazitako epe eta moduan, erantzuna **jaso behar du herritarrek** horretarako beharrezko azterketa zein lanketa jorratuta.

Landu den gaiaren arabera, dagokion sail erantzuleak erantzuna prestatzen du *Herritarrekin hartu-emanak* deritzan espedientea erabilia; saileko ordezkari politikokoak edo Alkateak izenpetu ostean dagokion irteera erregistroarekin bideratzen da erantzuna.

7.- ADIERAZLEAK

Adierazlea	Nork Aztertu	Non Aztertu	Noiz Aztertu	Nola Aztertu
PROZESUA Hitzordua eukita, jagokion teknikari edo ordezkari politikoa bere tokian ez egoteagatik kexa kopurua	ATB Sailak	Ertzila, 6- 8	3 hilabetero	Batzarren bidez

8.- LEGERI APLIKAGARRIA

- Udal gobernua modernizatzeko neurriei buruzko 57/2003 Legea, abenduaren 16koa.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa.
- Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra 2016/679 (EB), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, 2016ko Apirilaren 27koa
- 3/2018 Lege Organikoa, Abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko
- Datu Pertsonalak daukiezan fitxategi publikoak eta Datu Pertsonalak babesteko Euskadiko Babes Bulegoaren sorrerari buruzko zezeilaren 25eko 2/2004 Legea.
- 2008ko apirilko UNE 93200/2008 Zerbitzu Eskutitzen araudia.
- Q-epeko Zerbitzu karten ebaluaketa araudia.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E8000ED2FD00J2R0I2I8W8A7

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 20/02/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 20/02/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 20/02/2024 10:02:07

DOCUMENTO: 20240971517

Data: 20/02/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E8000ED2FD00J2R0I2I8W8A7



9.- ERLAZIONATUTAKO DOKUMENTAZINOA

Ez da beharrezkoa

10.- AZALPENAK

Hitzordua: Berba egiteko hartutako ordua

11.- OHARRAK

Hitzordua daukan aldeetako batek etorri ezin badau edo egunez aldatu behar badu, beste aldeari jakinarazotea, ezinbesteko betebeharra izango da.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E8000ED2FD00J2R0I2I8W8A7

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -
20/02/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 20/02/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 20/02/2024
10:02:07

DOCUMENTO: 20240971517

Datea: 20/02/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



6.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMOTEA.

Ez da ezer adierazi.

7.- ESKARI ETA ITAUNAK.

Ez da eskaerarik ezta itaunik egin.

Eta aztertzeko gai gehiago barik, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra goiburuan aitaturako ordu, egun eta lekuan, eta eztabaidaturakoa eta erabakitakoa jasota geratu dadin, nik, idazkariak, agiri hau egin eta izenpetzen dudanak, horren fede ematen dut, lehendakariaren oniritziarekin.

Agiri hau Euskal Autonomia Erkidegoko toki administrazioko zenbakidun paperean jasoko da.

Orrri oinean sinatzaileak eta datak



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E8000ED2FD00J2R0I2I8W8A7

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -
20/02/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 20/02/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 20/02/2024
10:02:07

DOCUMENTO: 20240971517

Datea: 20/02/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia